

## TXIRRINDULARITZAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK

### 1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena

TXIRRINDULARITZA  
GYMKANA  
BTT

### 2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak

- Parte hartzen duten txirrindulariek izena emateko prozedura:
  - Txapelketa bakoitzean parte hartzen dutenen izen ematea formalizatu egin beharko da, ordezkari federatiboaren bidez, horretarako ezarritako eta aurretik taldeei iragarritako eta helarazitako telefonora bidalitako WhatsApp mezu baten bitartez.
  - Prozedura horretarako epea txapelketen programan lehen probarako ezarritako irteera ordua baino **ordubete lehenago** itxiko da. Behin epe hori amaitutakoan, ez da onartuko izen emate gehiagorik.
  - Taldeetako arduradunek proban izena eman beharreko taldeko txirrindularien dortsal zenbakiak helaraziko dituzte; edo, bestela, izena emateko formularioaren argazki bat bidaliko dute, beteta (federazioak talde bakoitzari ematen dio).
  - Edozein kasutan, eta izen emateak kontrolatzeko indarrean dagoen araudiari jarraituz, epaimahai teknikoak beharrezkoa irizten dionean eskatu ahal izango du dagokion lizentzia eta/edo dokumentazio gehigarria aurrez aurre aurkezteko, hala behar badu.
- Txirrindulariei tenperatura hartzea:
  - Txirrindulariei gorputz tenperatura hartu beharko zaie, txapelketa programan probaren hasiera gisa ezarritako ordua baino lehen.

- Temperatura hartzeko bertaratzen ez direnek eta sukarra dutenek ezingo dute proban parte hartu. Horrez gain, azken horiei COVID-19aren aurkako kontingentzia plana aplikatuko zaie, protokolo honetan aurreikusitakoa.
- Kirolariak salbuetsita egongo dira maskara nahitaez erabiltzetik, baina soilik beroketan eta txapelketan.
  - Txirrindulariak irteera gunera maskara behar bezala jarrita dutela bertaratu beharko dira, eta ezingo dute kendu irteera epaileak baimena eman arte, irteera eman baino segundo batzuk lehenago.
  - Behin baimena jasotakoan, txirrindulari bakoitzak bere maskara gorde ahal izango du; debekatuta dago lurrera botatzea edo beste norbaiti ematea.
  - Helmuga gunean, entitate antolatzaileak mugatu egingo du helmuga lerroaren hurrengo 30 metroetarako sarrera, hesien edo beste bitarteko batzuen bidez (galga gunea); eta bermatuko du gune horretatik txirrindulariak eta probako langile ofizialak bakarrik dabiltzala. Edozein modutan, horiek ere ahal bezain denbora laburrean egongo dira bertan, pilaketak saihesteko, eta berehala irtengo dira bertatik.
  - Txirrindulariek ez beste guztiek, epaileek eta teknikariek barne, maskara erabili beharko dute nahitaez. Txirrindulariek nahitaez erabili beharko dute maskara, gunetik ahal bezain azkar irteten diren unetik bertatik.
- Txirrindulariak beren kategoriaren eta generoaren arabera sailkatuko dira, txandatan, eta 200 parte hartzaile izango dira, gehienez.

### **3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketa arauak**

- Txapelketak egiteko baimena udal autoritateei dagokie, eta, hala badagokio, beste instituzioei beharrezko baimenak eskatuko zaizkie, adibidez, Trafiko Zuzendaritzari.
- Entitate antolatzaileek instituzio eskudunei txapelketa garatzeko protokolo bat aurkeztu beharko diete, bermatuko duena higiene eta distantzia neurri guztiak beteko direla, baita autoritateek ezarritako beste edozein neurri ere.
- Entitate antolatzaileek nahitaez honako irizpide hauek bete beharko dituzte:
  - Entitate antolatzaileak konpromisoa hartzen du osasun alorrean eta osasuneko segurtasun alorrean eskatutako prebentzio neurri guztiak guztiz betetzera.
  - Entitate antolatzaileak bermatu beharko du garbitzeko, desinfektatzeko eta aireztatzekeo neurri egokiak hartzen direla, erabilitako lokalen, instalazioen edo espazioen arabera.

- Entitate antolatzaileak erabilitako espazioak, gehienezko edukierak eta gehienezko pertsonen mugak ezarri beharko ditu espazio bakoitzean. Horretarako, prebentzio neurrien eta pertsonen arteko distantziaren inguruko informazio seinaleak jarri beharko ditu (afixak, lurra eta espazioak markatzea eta abar); horrez gain, megafoniaren bidez ere prebentzio mezuak bidali beharko ditu.
  - Pertsonen artean 1,5 metroko distantzia utziko da, eta beti izango da nahitaezkoa maskara erabiltzea, kirolariek beroketan eta txapelketan salbu.
  - Txapelketa egunean, entitate antolatzaileak arreta berezia eman beharko die osasun eta segurtasun neurri guztiei, txapelketaren aurreko eta ondorengo fase guztietan (kirolariak txapelketa egingo den udalerrira iristea, ikusleen eta pilaketan kontrola, kirolarien arteko distantzia eta abar).
  - Entitate antolatzailearen jarduna osasun alorreko langile batek gainbegiratu beharko du, edo, bestela, berariaz lan hori esleitua duen pertsona batek, zeinak bere gain hartuko duen neurriak modu egokian betetzearen erantzukizuna.
  - Debekatuta dago jarduera ludiko edo komertzial paraleloak antolatzea.
  - Garbitzeko edo desinfektatzeko objektu zailak partekatzea saihestu behar da.
- Parte hartzen duten txirrindulariek izena emateko prozedura:
    - Txapelketa bakoitzean parte hartzen dutenen izen ematea formalizatu egin beharko da, ordezkari federatiboaren bidez, horretarako ezarritako eta aurretik taldeei iragarritako eta helarazitako telefonora bidalitako WhatsApp mezu baten bitartez.
    - Prozedura horretarako epea txapelketen programan lehen probarako ezarritako irteera ordua baino ordubete lehenago itxiko da. Behin epe hori amaitutakoan, ez da onartuko izen emate gehiagorik.
    - Taldeetako arduradunek proban izena eman beharreko taldeko txirrindularien dortsal zenbakiak helaraziko dituzte; edo, bestela, izena emateko formularioaren argazki bat bidaliko dute, beteta (federazioak talde bakoitzari ematen dio).
    - Edozein kasutan, eta izen emateak kontrolatzeko indarrean dagoen araudiari jarraituz, epaimahai teknikoak beharrezkoa irizten dionean eskatu ahal izango du dagokion lizentzia eta/edo dokumentazio gehigarria aurrez aurre aurkezteko, hala behar badu.
- Entitate antolatzaileak txirrindulariak beren kategoriaren eta generoaren arabera sailkatuko ditu, txandatan, eta 200 parte hartzaile izango dira, gehienez.
  - Kirolariak salbuetsita egongo dira maskara nahitaez erabiltzetik, baina soilik beroketan eta txapelketan.

- Entitate antolatzaileak osasun alorreko langile bat izango du, edo, bestela berariaz lan hori esleitua duen pertsona bat, eta hari taldeetako ordezkariak lagunduko diote, bermatzeko parte hartzen duten guztiek honako irizpide hauek betetzen dituztela:
  - Txirrindulariak irteera gunera maskara behar bezala jarrita dutela bertaratu beharko dira, eta ezingo dute kendu irteera epaileak baimena eman arte, irteera eman baino segundo batzuk lehenago.
  - Behin baimena jasotakoan, txirrindulari bakoitzak bere maskara gorde ahal izango du; debekatuta dago lurrera botatzea edo beste norbaiti ematea.
  - Helmuga gunean, entitate antolatzaileak mugatu egingo du helmuga lerroaren hurrengo 30 metroetarako sarrera errepidean eta BTTn eta 10 metroetarako gymkanan, hesien edo beste bitarteko batzuen bidez (galga gunea); eta bermatuko du gune horretatik txirrindulariak eta probako langile ofizialak bakarrik dabiltzala. Edozein modutan, horiek ere ahal bezain denbora laburrean egongo dira bertan, pilaketak saihesteko, eta berehala irtengo dira bertatik.
  - Txirrindulariek ez beste guztiek, epaileek eta teknikariek barne, maskara erabili beharko dute nahitaez. Txirrindulariek nahitaez erabili beharko dute maskara, gunetik ahal bezain azkar irteten diren unetik bertatik.
- Parte hartzen duen entitateak bermatuko du edozein kasutan anoa hornidurarekin lotutako produktu, ontzi eta objektu guztiak behar bezala identifikatuta daudela, txirrindulari bakarrak kontsumitu eta erabili ditzan.
- Txirrindulariak eta teknikariak txapelketetara garraiatzea:
  - Parte hartzen duten entitateetako txirrindulariak eta teknikariak mugitzeko eta garraiatzeko ibilgailuak bete egin ahal izango dira, eseritako plazen gehieneko edukiera bete arte, baina, posible denean, bermatu beharko da ahal besteko distantzia mantentzen dutela beren artean. Ibilgailuetan daudenek maskara erabili beharko dute horietako guztiak etxebizitza berebanean bizi ez badira.
  - Bereziki gomendagarria da txirrindulariak beren etxebizitza nukleoan bizi direnek mugitzea, ibilgailu partikularretan, parte hartzen duen entitatearen ibilgailuetan guztiak batera joan ordez.
- Bulego iraunkorra / izen emateen kontrola:

- Eguraldiaren ondorioz zaila denean edo gomendagarria ez denean izan ezik, bulego iraunkorra aire zabaleko espazioetan egongo da.
  - Aitzitik, espazio itxi batean badago, bertan honako hauek bakarrik egon ahal izango dira: epaimahai teknikoko presidentea, epaimahaiko idazkaria, federazioko ordezkaria eta antolakuntzako pertsona bat; beren artean 1,5 metroko distantzia utzi beharko dute, eta maskara erabili. Entitate antolatzaileak bermatuko du espazioa behar bezala aireztatzen dela.
  - Entitate antolatzaileak espazioa zuhur-zuhur garbitu eta desinfektatu beharko du, bulego iraunkorra ireki aurretik eta erabili bitartean.
  - Bulego iraunkorra behar bezala egokituta egon beharko da parte hartzaileek izena emateko, sailkapenak ezartzeko, dagozkion aktak idazteko edo beharrezko beste lan batzuk egiteko, pilaketarik eragin gabe, pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko distantzia fisikoa utziz eta maskara erabiliz.
  - Entitate antolatzaileak bulego iraunkorreko sarreran eta haren barruan higienarako eta desinfektatzeko beharrezko elementuak jarriko ditu, esaterako, xaboi hidroalkoholikoa, produktu desinfektatzaileak, eskuak lehertzeko papera eta abar, baita nahitaezko prebentzio neurrien inguruko informazioa ere.
  - Entitate antolatzailea afixen edo seinaleztapen zehatzaren bidez arduratuko da pertsonen artean 1,5 metroko distantzia utzi behar dela, maskara erabili behar dela eta beste edozein informazio erabilgarri emateaz.
  - Gainerako gai guztietarako, entitate antolatzaileak jarraitu egin beharko die bulego iraunkorra instalatuta dagoen establezimendu, lokal edo espazio motarako autoritate eskudunek emandako arauari, eta bete egin beharko ditu.
- Txirrindulariei tenperatura hartzea:
    - Txirrindulariei gorputz tenperatura hartu beharko zaie, txapelketa programan probaren hasiera gisa ezarritako ordua baino lehen.
    - Tenperatura hartzeko bertaratzen ez direnek eta sukarra dutenek ezingo dute proban parte hartu. Horrez gain, azken horiei COVID-19aren aurkako kontingentzia plana aplikatuko zaie, protokolo honetan aurreikusitakoa.
    - Antolatzaileak erabakiko du tenperatura kontrolatzeko espazioaren kokapen zehatza, eta bertara txirrindulari parte hartzaileak joateko hurrenkera ezarriko du.
- Kontingentzia plana:

- Edonork COVID-19arekin bateragarriak diren sintomaren bat badu, esaterako, sukarra, hotzikarak, eztula, airea faltan izatearen sentrazioa, usaimenaren edo dastamenaren galera, eztarriko mina, giharretako mina, buruko mina, ahuldade orokorra, diarrea edo gorakoa, etxean gelditu beharko da, eta osasun zerbitzuei lehenbailehen jakinarazi beharko die.
  - Gainera, etxebizitzan norbaitekin bizi bada, horiekin kontaktua saihestu beharko da, eta, ahal bada, gela bat berak bakarrik erabili beharko du, osasun zerbitzuetik jarraibideak jaso arte.
  - COVID-19arekin bateragarriak diren sintomaren bat izatekotan kirol proban bertan, lan horietarako berariaz esleitutako osasun langileak edo pertsonak kasua Osakidetzako zerbitzuetara bideratuko du, osasun publikoko dagozkion protokoloak aplikatu daitezten.
  - Sintomak dituen pertsonak ez du parte hartuko kirol proban, eta, arduraren printzipio moduan, ezta haren entrenamendu taldea osatzen dutenek edo probara joateko garraibidean harekin egon direnek ere.
  - Kirolariren batek edo talde teknikoko kideren batek badaki COVID-19a duela edo gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak baditu, edo baieztatutako kasuren batekin kontaktu estua izan badu, berehala jakinaraziko die osasun autoritateei, Osakidetzak ezarritako bitartekoen bidez, eta une oro jarraituko die hark emandako jarraibideei.
- Gymkana zirkuituan eta irteera eta helmuga guneetan txirrindularien eta teknikarien pilaketak saihesteko neurriak:
    - Nahitaez, txapelketak antolatzeko zirkuituak herriko erdiguneetatik edo herriguneetatik aldenitu beharko dira, eta, bestela, haien aldirietan kokatu beharko dira, edo populazio dentsitate txikiko edo hutseko tokitan.
    - Gehienez ere 200 txirrindularik hartu ahalko dute parte.
    - Txirrindulariak txandatan banatuko dira –beroketarako eta txapelketarako–, kategoriaren eta generoaren arabera, pilaketak saihesteko.
    - Entitate antolatzaileak txirrindularien ordutegiak eta hurrenkera zehaztuko ditu, beroketa eta/edo txapelketa txandetarako.
    - Kirolariak salbuetsita egongo dira maskara nahitaez erabiltzetik, baina soilik beroketan eta txapelketan.
- Ikusleentzako neurriak:
    - Ekitaldiaren espazioa edo bidea aurretik mugatu beharko da, eta espazioko edo ibilbideko gehienez 1.000 pertsona egon ahalko dira, pertsonen artean 1,5 metroko distantzia utzi beharko da, eta maskara nahitaezkoa izango da.

- Zirkuituko megafoniaren bidez ibilbideko bazterbideetan dauden ikusleei gogorarazi beharko zaie haien artean 1,5 metroko distantzia utzi eta maskara nahitaez erabili behar dutela.
  - Entitate antolatzaileak informazio seinaleak jarri beharko ditu prebentzio neurrien eta pertsonen arteko distantziaren inguruan (afixak, markak lurrean eta espazioetan, eta abar).
  - Entitate antolatzailea arduratuko da irteera eta helmuga guneetan pilaketak ekiditeaz, baita ibilbide soan ere. Bermatuko du guneetara modu antolatuan sartuko eta irtengo dela jendea, pertsonen artean ezarritako distantzia fisikoa uzten duela eta maskara erabiltzen duela.
  - Ezingo da ikusleentzako harmailarik jarri.
  - Taberna zerbitzua duten instalazioetan sektore horretarako indarrean dauden mugak eta neurriak ezarri beharko dira.
- Podiuma / protokolo ospakizuna: Bertan behera
  - Aldagelak / dutxak:
    - Entitate antolatzaileak parte hartzen dutenei ez die aldagela eta dutxa zerbitzurik eskainiko.

#### **4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketa arauak.**

- Parte hartzen duen entitateak konpromisoa hartzen du osasun alorrean eta osasuneko segurtasun alorrean eskatutako prebentzio neurri guztiak guztiz betetzera.
- Parte hartzen duen entitateak bermatu beharko du garbitzeko, desinfektatzeko eta aireztatzeko neurri egokiak hartzen direla, erabilitako lokalen, instalazioen edo espazioen arabekoak.
- Pertsonen artean 1,5 metroko distantzia utziko da, eta beti izango da nahitaezkoa maskara erabiltzea, kirolariek entrenamenduan, beroketan eta txapelketan salbu.
- Parte hartzen duen entitateak bermatuko du edozein kasutan anoa hornidurarekin lotutako produktu, ontzi eta objektu guztiak behar bezala identifikatuta daudela, txirrindulari bakarrak kontsumitu eta erabili ditzan.

- Garbitzeko edo desinfektatzeko objektu zailak partekatzea saihestu behar da.
- Txapelketa egunean, parte hartzen duen entitateak arreta berezia eman beharko die osasun eta segurtasun neurri guztiei, txapelketaren aurreko eta ondorengo fase guztietan (kirolariak txapelketa egingo den udalerrira iristea, kirolarien arteko distantzia eta abar).
- Kontingentzia plana:
  - Edonork COVID-19arekin bateragarriak diren sintomaren bat badu, esaterako, sukarra, hotzikarak, eztula, airea faltan izatearen sentazioa, usaimenaren edo dastamenaren galera, eztarriko mina, giharretako mina, buruko mina, ahuldade orokorra, diarrea edo gorakoa, etxean gelditu beharko da, eta osasun zerbitzuei lehenbailehen jakinarazi beharko die.
  - Gainera, etxebizitzan norbaitekin bizi bada, horiekin kontaktua saihestu beharko da, eta, ahal bada, gela bat berak bakarrik erabili beharko du, osasun zerbitzutik jarraibideak jaso arte.
  - COVID-19arekin bateragarriak diren sintomaren bat izatekotan kirol proban bertan, entitate antolatzaileak lan horietarako berariaz esleitutako osasun langileari edo pertsonari jakinarazi beharko zaio, eta hark kasua Osakidetzako zerbitzuetara bideratuko du, osasun publikoko dagozkion protokoloak aplikatu daitezten.
  - Sintomak dituen pertsonak ez du parte hartuko kirol proban, eta, ardura printzipio moduan, ezta haren entrenamendu taldea osatzen dutenek edo probara joateko garraibidean harekin egon direnek ere.
  - Idazki baten bidez, ikasturtea hastean, kirolarien gurasoek edo tutoreek konpromisoa hartu beharko dute, dagokion kirol entitatearekin, honetarako:
    1. Egiaztatzea eta bermatzea kirol jardueraren batean parte hartu behar dutenek, entrenamendu batean, txapelketa batean edo besteren batean, hasi aurretik, ez dutela COVID-19arekin bateragarria izan daitekeen sintomarik.
    2. Kirol entitateari eta osasun autoritateari ohartaraztea etxeko norbaiti COVID-19a diagnostikatu diotela, eta haien karguko kirolaria etxean mantentzea.
  - Gauza bera eskatzen zaie teknikariei, epaileei eta eskola kiroleko jardueretan parte hartzen duten gainerako guztiei.
  - Kirolariren batek edo talde teknikoko kideren batek badaki COVID-19a duela edo gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak baditu, edo baieztatutako kasuren batekin kontaktu estua izan badu, berehala jakinaraziko die osasun autoritateei, Osakidetzak ezarritako bitartekoen bidez, eta une oro jarraituko die hark emandako jarraibideei.



- Txirrindularientzako eta teknikarientzako neurriak, entrenamenduetarakoak:
  - Parte hartzen duen entitateak konpromisoa hartzen du osasun alorrean eta osasuneko segurtasun alorrean eskatutako prebentzio neurri guztiak guztiz betetzera.
  - Parte hartzen duen entitateak bermatu beharko du garbitzeko, desinfektatzeko eta aireztatzeko neurri egokiak hartzen direla, erabilitako lokalen, instalazioen edo espazioen arabera.
  - Pertsonen artean 1,5 metroko distantzia utziko da, eta beti izango da nahitaezkoa maskara erabiltzea, kirolariek entrenamenduan, beroketan eta txapelketan salbu.
  - Parte hartzen duen entitateak bermatuko du edozein kasutan anoa hornidurarekin lotutako produktu, ontzi eta objektu guztiak behar bezala identifikatuta daudela, txirrindulari bakarrak kontsumitu eta erabili ditzan.
  - Ahal dela, hitzaldi teknikoak espazio irekietan eman beharko dira, aire zabalean, eta aldagelak, gela itxiak eta aireztapen txarra edo hutsala dutenak saihestu.
  - Posible den heinean, entrenamendu saioetan eta beste jarduera batzuetan, saiatuko da pertsonak ezaugarri komunetan oinarritutako azpitalde egonkorretan antolatzen eta banatzen, esaterako, etxebizitza, ikasgela, ikastetxea, herria eta abar bera izatean oinarrituta.
  
- Parte hartzen duten txirrindulariek izena emateko prozedura:
  - Txapelketa bakoitzean parte hartzen dutenen izen ematea formalizatu egin beharko da, ordezkari federatiboaren bidez, horretarako ezarritako eta aurretik taldeei iragarritako eta helarazitako telefonora bidalitako WhatsApp mezu baten bitartez.
  - Prozedura horretarako epea txapelketen programan lehen probarako ezarritako irteera ordua baino ordubete lehenago itxiko da. Behin epe hori amaitutakoan, ez da onartuko izen emate gehiagorik.
  - Taldeetako arduradunek proban izena eman beharreko taldeko txirrindularien dortsal zenbakiak helaraziko dituzte; edo, bestela, izena emateko formularioaren argazki bat bidaliko dute, beteta (federazioak talde bakoitzari ematen dio).
  - Edozein kasutan, eta izen emateak kontrolatzeko indarrean dagoen araudiari jarraituz, epaimahai teknikoak beharrezkoa irizten dionean eskatu ahal izango du dagokion lizentzia eta/edo dokumentazio gehigarria aurrez aurre aurkezteko, hala behar badu.
  
- Txirrindularientzako eta teknikarientzako neurriak, txapelketetarakoak:

- 
- Entitate antolatzaileak txirindulariak beren kategoriaren eta generoaren arabera sailkatuko ditu, txandatan, eta 200 parte hartzaile izango dira, gehienez.
- Kirolariak salbuetsita egongo dira maskara nahitaez erabiltzetik, baina soilik beroketan eta txapelketan.
- Entitate antolatzaileak osasun alorreko langile bat izango du, edo, bestela berariaz lan hori esleitua duen pertsona bat, eta hari taldeetako ordezkariak lagunduko diote, bermatzeko parte hartzen duten guztiek honako irizpide hauek betetzen dituztela:
  - Txirindulariak irteera gunera maskara behar bezala jarrita dutela bertaratu beharko dira, eta ezingo dute kendu irteera epaileak baimena eman arte, irteera eman baino segundo batzuk lehenago.
  - Behin baimena jasotakoan, txirindulari bakoitzak bere masakra gorde ahal izango du; debekatuta dago lurrera botatzea edo beste norbaiti ematea.
  - Helmuga gunean, entitate antolatzaileak mugatu egingo du helmuga lerroaren hurrengo 30 metroetarako sarrera, hesien edo beste bitarteko batzuen bidez (galga gunea); eta bermatuko du gune horretatik txirindulariak eta probako langile ofizialak bakarrik dabiltzala. Edozein modutan, horiek ere ahal bezain denbora laburrean egongo dira bertan, pilaketak saihesteko, eta berehala irtengo dira bertatik.
- Txirindulariek ez beste guztiek maskara erabili beharko dute nahitaez. Txirindulariek nahitaez erabili beharko dute maskara, gunetik ahal bezain azkar irteten diren unetik bertatik.
- Parte hartzen duen entitateak bermatuko du edozein kasutan anoa hornidurarekin lotutako produktu, ontzi eta objektu guztiak behar bezala identifikatuta daudela, txirindulari bakarrak kontsumitu eta erabili ditzan.
- Txirindulariak eta teknikariak txapelketetara garraiatzea:
  - Posible den heinean, txapelketetarako joan-etorrietan, saiatuko da pertsonak ezaugarri komunetan oinarritutako azpitalde egonkorretan antolatzen eta banatzen, esaterako, etxebizitza, ikasgela, ikastetxea, herria eta abar bera izatean oinarrituta.
  - Parte hartzen duten entitateetako txirindulariak eta teknikariak mugitzeko eta garraiatzeko ibilgailuak bete egin ahal izango dira, eseritako plazen gehieneko edukiera bete arte, baina, posible denean, bermatu beharko da ahal besteko distantzia mantentzen dutela beren artean. Ibilgailuetan daudenek maskara erabili beharko dute horietako guztiak

etxebizitza bereberean bizi ez badira.

- Bereziki gomendagarria da txirindulariak beren etxebizitza nukleoan bizi direnek mugitzea, ibilgailu partikularretan, parte hartzen duen entitatearen ibilgailuetan guztiak batera joan ordez.

- Kirolariek doazen senideentzako neurriak:

- Idazki baten bidez, ikasturtea hastean, kirolarien gurasoek edo tutoreek konpromisoa hartu beharko dute, dagokion kirol entitatearekin, honetarako:

1. Egiaztatzea eta bermatzea kirol jardueraren batean parte hartu behar dutenek, entrenamendu batean, txapelketa batean edo besteren batean, hasi aurretik, ez dutela COVID-19arekin bateragarria izan daitekeen sintomarik.
2. Kirol entitateari eta osasun autoritateari ohartaraztea etxeko norbaiti COVID-19a diagnostikatu diotela, eta haien karguko kirolaria etxean mantentzea.

- Parte hartzen duen entitateak kirolariei entrenamenduetara eta txapelketetara laguntzen dieten senideei bideratutako beharrezko lan pedagogikoa egin beharko du, autoritateek ezarritako osasun eta segurtasun alorreko prebentzio neurri guzti-guztiei jarraitu diezaieten eta horiek errespetatu ditzaten, zehazki pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantentzeari eta elkarbizitza nukleo bereberekoak ez direnekin egotean maskara nahitaez eramateari dagokionez, baita parte hartzen duen entitateak edo antolatzaileak ezarritako neurri gehigarriei ere.

- Parte hartzen duen entitateak programatutako entrenamendu saioa ez bada itxia, parte hartzen duen entitateak bermatuko du txirindulariei laguntzen dietenek pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantentzen dutela, eta nahitaez maskara jantzita dutela.

- Txapelketetan, parte hartzen duten entitateen arduradunek entitate antolatzaileari lagundu egingo diote kirolariek doazen senideek eta ikusleek orokorrean pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia uzten dutela eta nahitaez maskara jantzita dutela.

- Aldagelak / dutxak:

- Parte hartzen duten entitateek entrenamenduetan ez diete aldagela eta dutxa zerbitzurik emango txirindulariei, ezta entitate antolatzaileek txapelketetan ere.

